

**TOLOSAKO UDAL POLITIKETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA  
TXERTATZEKO ESTRATEGIA BERRESTEA**

## 1.- SARRERA ETA AURREKARIAK

Aurreko mendeko 70eko hamarkadatik hona, gizon eta emakumeen berdintasun esparruan aurrerapenak egin dira. Hala ere, datu estatistiko zein ikerketek agerian uzten dute desberdintasunek oraindik ere indarrean jarraitzen dutela. Gainera, krisi eta murrizketa ekonomikoen garaian, desberdintasun horiek areagotu egin dira. Batzuetan, Administrazio Publikoen esku-hartzeek gizon eta emakumeen arteko baliabideen banaketan emaitza negatiboa eragiten dute, beren jardueretan ez dutelako genero ikuspegia, helburu egonkor eta esplizitu moduan barneratu.

Amsterdameko Itunaren onarpenetik (1997), gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako politikak garapen handia izan dute. Hasiera batean politika horien izaeran, diskriminatzeko debekua gailentzen zen. Gaur egun aldiz gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko guztiok ekiteko betebeharra nagusitzen da. Era honetan:

- Erromako Ituna (1957): diskriminazio mota guztiak ezabatzeko betebeharra ezarri zuen, eta legeen garapenaren bitartez, zeharkako diskriminazioak (bizirik dirautenak, eta argitara ateratzeko zailak direnak) azaleratu eta ebazteko neurriak hartzen joan dira.
- Amsterdameko Ituna (1997): berdintasun printzipioa interpretazio eta esku-hartzearen ardatz bihurtu zuen, eta politika publiko eta jarduera maila guztietan eragiten duen korrante bihurtu zen (mainstreaming-a). Botere publikoek beren politikak planifikatu eta gauzatu behar dituzte, desberdintasunak ezabatu eta berdintasunarekiko positiboki eragiteko helburuarekin.

## Berdintasun Politiketako aurrerapausoak



Itun batetik bestera pasatzeak aurrerapauso handiak suposatu ditu, Lege Diskriminatzaileen ezabatzean, Berdintasun Politiketarako Organismo eta egitura espezifikoaren eraketan, Ekintza Positiboaren sustapen eta ezarpenean, Aukera Berdintasunerako Plan eta Programaren osaketa eta gauzatzean, eta bukatzeko, Genero Mainstreaming estrategiaren sustapenean.

Estrategia berri hau Beijing-eko Emakumeen Mundu Mailako IV. Konferentzian (1995) sortu zen, eta honela definitzen da: "Politikaren izaera osoaren berrantolaketa da, eta honek integrala, estrukturala eta horizontala izan behar du. Sail, maila eta fase guztietan eragin behar du, eta ezinbestekoa izango da politikan inplikaturako eragilearen parte-hartzea, baita baliabideen espezifikoak bere zerbitzura jartzea ere." Beraz, prozesu politiko-tekniko bat garatuko da, planifikatua, sistematikoa eta parte-hartzailea izango dena, eta lortutako emaitzek garrantzi berezia izango dute.

Estrategia hau estatu espainiarrean 3/2007 Lege Organikoan jasotzen da, Gizon eta Emakumeen Berdintasun Efektiboari buruzkoan (15 art.), eta EAEn 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean (Printzipio Orokorrak eta II Titulua).

## **2.- TOLOSAKO UDALAREN AURRERAKIAK**

- 2001/2002 urtea: Berdintasun Batzordearen sorrera. Lehen Diagnostikoa eta Aukera Berdintasunerako Lan Programa.
- 2006 urtea: hainbat atxikipen: Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna eta Berdintasuna (Berdintasunerako euskal udalerrien sarea). "Berdintasunaren Kultura Tolosan" diagnostikoa egin zen.
- 2008 urtea: Berdintasunerako lehen ordenantza onartu zen.
- 2009 urtea: 2009-2011 Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartu zen.
- 2012 urtea: Berdintasunerako II. Planaren eta Tolosako udalaren Berdintasunerako Udaltzaren ezarpenaren ebaluazioa.

Horren bidez antzeman zenez, bertan programatutako jardunak ez ziren modu orokortuan garatu Udalean eta, horrenbestez, beharrezkoa zela ahalegin handiagoa egitea haren politika eta ekintza guztietan generoaren ikuspegia barne hartzeko bidea emango duten zeharkako neurriak abian jartzeko; politika eta ekintza horietan guztietan, desberdintasunak baztertzeko eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezar dadin.

Hori dela eta, datozen urteetarako helburutzat finkatu da Tolosako Udalaren udal-politiketan genero-zeharkakotasuna sustatu eta abiarazteko oinarriak ezarriko dituen berriazko proiektua gauzatzea, epe labur, ertain eta luzean proiektu estrategiko gisa hartuta, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko, bai Tolosako udalerraren barruan, bai udaletxearen beraren barruan

Honen harira 2013 urtetik gaur egunera hiru proiektu jarri dira martxan:

- 2013 urtea: Udal politiketan genero-zeharkakotasuna ezartzeko eta sustatzeko proiektua garatu zen.
- 2014 urtea: Udalaren politiketan genero-zeharkakotasuna barne hartzeko definitutako sailen jardun-planen monitorizazio eta jarraipena
- 2015 urtea: Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta III. Plana onartzen da.

Eta Genero-zeharkakotasuna: Lantalde fokalen dinamizazioa eta jarraipenaren proiektua martxan jartzen da.

2013an, Berdintasun Saitetik *Tolosako Udalaren udal-politiketan genero-zeharkakotasuna ezartzeko eta sustatzeko* proiektua bultzatu zen. Izaera estrategikoko proiektu bat da Tolosako udal-politika guztietan genero-zeharkakotasuna lortzeko. Proiektu horren helburua da ahaleginak areagotzea eta epe labur, ertain eta luzean proiektu espezifiko bat garatzea Tolosako Udalaren barruan emakume eta gizonen arteko zeharkako berdintasun-ekintzak pixkanaka ezartzeko, udal-sail bakoitzaren aurrerapen-mailara egokituak.

Proiektu horren barruan, 2013 urtetik gaur egunera, jarduketa ugari egin dira eta

aldaketa-prozesu bat zabaldu da sinergia eta mekanismo berriak finkatzeko udal-sailetan genero-zeharkakotasuna modu sistematikoan ezartzeko, errealitate guztietara egokituta arlo horretako aurrerapen-mailari eta garapenari dagokienez.

Eta proiektu hau aurrera eramateko, lan batzordeak eta beraien funtzioak, barne araudi baten bidez, 2013ko uztailaren 23an, Osoko Bilkuran onartu ziren.

Jarraian, proiektu horren barruan garatutako jarduketa guztiak zehaztuko dira:

- Udaleko zerbitzu eta/edo sail bakoitzean zeharkako neurrien ezarpen-mailaren diagnostiko-fasea, Udaleko sail eta zerbitzu guztietan *informazioa biltzeko* egindako *galdera sorta* baten bidez: Komunikazioa, Kultura, Kirolak, Enplegua, Euskara, Festak, Informatika, Kontuhartzailtza, Gazteria, Ingurumena, Pertsonala, Udaltzaingoa, Idazkaritza, Gizarte Zerbitzuak, Turismoa-Feriak-Azokak-Garapen Ekonomikoa eta Hirigintza. Guztira 16 pertsonak hartu dute parte, 7 emakumek eta 9 gizonek. Egindako galdera sortaren egitura 10 item nagusiri buruzko informazioa lortzeko egin zen: zerbitzuaren edo sailaren datu orokorrak; informazio-tresnak egokitzea sexuaren aldagaia sartzeko; hizkuntza inklusibo bat erabiltzea; genero-ikuspegia duten datu eta azterlan sozialak; berdintasunaren sustapena dirulaguntzen bidez; berdintasun-irizpideak sartzea kontratazio-prozedura eta hitzarmenetan; sustapena aitorpenen, sarien, ondasun kultural eta artistikoen erosketen bidez, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu-baliabideak; genero-inpaktuaren ebaluazioa; prestakuntza-premiak genero-arloan.
- Udalaren web-orri, blog, etab. guztietan hizkuntza eta irudi ez-sexisten erabilera-maila azterketa bat egin zen.
- Prestakuntza, udal-sail bakoitzeko langileen ordezkari bati emandakoa, *Hizkuntza ez-sexista baten erabilera euskaraz* gaiari buruz.
- Tolosako *Udal-politiketan genero-zeharkakotasuna abiarazteko instrukzioa* prestatu zen nahiz eta ez zen zabaldu.
- Lan- eta sentsibilizazio-saioak modu indibidualizatuan udal sailekin. Saio horietan instrukzioan aipatutako ardatz bakoitza landu zen. Saio horien azken xedea izan da sail guztien sentsibilizazioa eta inplikazioa Tolosako Udalaren politika publikoetan genero-zeharkakotasunaren ezarpen handiago bati erantzungo dioten ekintzak ezartzeko
- Proposatutako jarduketak informazioa biltzeko fitxa indibidualizatu batzuetan jaso

ditu sail bakoitzak, eta Tolosako Udalaren udal-politikan genero-zeharkakotasuna abiarazteko ekintza-plan gisa integratuko dira bi urteko epe baterako eta horien jarraipena eta monitorizazioa egiteko proiektua garatu da 2014 eta 2015eko urteetan.

- Lan bilerak IZFEekin; bere informatika aplikazio desberdinen barruan sartu zitzala sexu, adina eta jatorria aldagaiak eta hizkera ez sexistaren erabilera sustatzeko asmoarekin.
- Udal sailekin ere segimendu saioak egin dira, eta ez dira mugatu soilik aurreikusitako neurrien ezarpen-mailaren gaineko informazio jasotzeko. Erabili dira, baita ere, aholkularitza emateko sail desberdinei neurriak inplementatzeko garaian izan dituzten zailtasunak ere jasotzeko.
- Lan-saio bat kontratazio mahaiarekin, kontratazio pleguetan berdintasun irizpideak eta klausulak sistematikoki txertatzeko.
- Gaur egun, beste saio bat izan dugu eta kontratazio plegu guztietan irizpide minimo batzuk sartzea adostu dugu. Eta pleguak zirriborro direnean eta behin benekoak Berdintasun Sailari helarazi behar dira.

**2016ko urteari begira:** genero-zeharkakotasuna berdintasunerako III. Planean esku-hartzeko ardatz bat da, 3 helburu estrategikoak eta 24 neurri jasotzen ditu.

Alde batetik, sexu aldagaia erregistro eta eskaera orrietan eta datu basetan txertatzeko lanarekin jarraituko da eta bestalde, hizkera ez sexistaren erabilerarekin. Bereziki, Gizarte Zerbitzuarekin, Giza Baliabidearekin, Enplegu, Ingurumena eta Informatika udal sailekin Kirola, Gazteria, Kultura eta Jaiak udal departamentuekin, datuak sistematikoki jasotzeko prozedura batean sartuko gara, hau da, urtero bildu behar diren udal-datuen eta beste entitate batzuetatik eskuragarri dauden datu estatistikoen zerrenda zehatz bat ezartzea, sexuaren adinaren eta jatorrizko herrialdearen aldagaiak txertatzeko. III. Planaren 1.2.2.4 neurria dena.

Eta departamentu hauek antolatzen dituzten aktibitate guztietan aldagaia hauek kontutan izatea. Departamentu hauen artean proiektua bat garatzea ere proposatzen da.

Bukatzeko estrategia honekin, prestakuntza plana proposatuko da, 30 ordukoa bi urtetan emateko. Formazioa, Likadi enpresarekin egitea proposatzen da.

Beraz gaurkoan, berdintasunarekiko gure konpromisoa irmoa eta albora ezina dela nabarmendu nahi dugu, eta adierazpen instituzionalez harago, estrategia hau martxan

jarriko dugu, udal kudeaketa hobetu eta tolosar guztion bizi kalitatea hobetzeko. Konpromiso hau etikoa izateaz gain politikoa eta teknikoa ere bada, onarpen zabala duena, eta gobernu aldaketen aurrean egonkor mantendu nahi dena. Estrategiaren garapena eraginkorra izateko ezinbestekoa izango da lotesleak izango diren arauen sorrera, emakume eta gizonen berdintasunerako printzipioa plangintzetan txertatzea, eta egituren sorrera, strategiaren iraunkortasun eta horizontaltasuna bermatzeko.

Dokumentu honen helburua, genero zeharkakotasunaren estrategia aurrera eramateko, eratu ziren lan batzordeak eta beraiei eta lehendik daudenei funtzio hauek adostea eta konpromisoa berrestea da.

## **1. Berdintasun Batzordea**

1.1. Ondoko hauek osatuko dute: berdintasuneko zinegotziak; berdintasuneko teknikariek; udal-talde politiko, kolektibo feminista eta udalerriko elkarte bakoitzaren ordezkariak; eta, azkenik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiten lan egin nahi duten sentsibilizatutako banako pertsonak.

### **1.2. Batzorde horri honako funtzioak esleitu zaizkio:**

- Proiektuaren lidergoa, bultzada eta kudeaketa orokorra.
- Proiektua abiarazteko jarraibide estrategikoak zehaztea.
- Proiektuaren planteamendu teknikoak eta haren garapenean eragina duten aldaketak baliozkotzea.
- Proiektua gauzatzean sortutako dokumentazioa baliozkotzea.
- Proiektuaren gauzatze-maila eta emaitzak jarraitu eta ebaluatzea.

## **2. Barne koordinaziorako Batzordea**

2.1. Udal-sail eta zerbitzu guztietako zuzendaritzek osatutako dute:

- Alkatea, edo hark eskuordetzen duen pertsona
- Hirigintza eta Azpiegiturak
- Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak
- Udaltzaingoa, Mugikortasuna eta Segurtasuna
- Ekonomiaren sustapena
- Merkataritza, Feriak eta Turismoa
- Hizkuntza politika eta Hezkuntza

- Gizarte politika
- Diru kontuen eta Ogasuna
- Giza Baliabideak eta Udal antolaketa
- Herritarrekiko harremanak, Partaidetza eta Informazioaren gizartea
- Kirolak
- Kultura, Festak eta Gaztedia

## **2.2. Batzorde horri honako funtzioak esleitu zaizkio:**

- Esku hartzen duten sailetan Berdintasun Batzordeak zehaztutako ekintzen hedapena erraztea eta bultzatzea.
- Sailetan ezartzeko aurrerabide mailaren jarraipena eta kontrola.
- Udaleko sail guztien artean solas organoa izatea, proiektuaren esparruaren barruan, horietako bakoitzean topatutako zailtasunak eta egindako aurrerapenak bateratzeko, eta hobetzeko litezkeen jarraibideak identifikatu eta proposatzeko.
- Sail bakoitzean proiektuaren ondoriozko ekintzak ezarri eta bultzatzeko ardura duen bertako pertsonal teknikoaren eta ordezeko pertsonalaren izendapena berrestea.
- Pertsonal horrek proiektua garatzeko beharrezkoak diren aurrekontu baliabideak, prestakuntzakoak, arduraldia eta ebazteko ahalmena esleitzea.
- Proiektuaren garapen-esparruaren barruan zehazten diren berdintasunean hezteko prozesuetan parte hartzea, eta eskuratutako ezagutzak, esperientziak eta tresnak dagokion saileko gainerako pertsonalari helaraztea.

## **3. Solasaz arduratutako pertsonal teknikoa**

3.1. Aipatzen diren Departamentu eta Zerbitzuei eskatzea pertsona teknikoa izendatzea :

- Idazkaritza Saila.
- Pertsonal Zerbitzua
- Kontu-hartzailatza Saila.
- Hirigintza Saila.
- Gizarte Zerbitzuetako Saila.
- Gazteria Zerbitzua.
- Kultura eta Jaien Saila.
- Ingurumen Zerbitzua
- Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak



- Merkataritza, Feriak eta Turismoa
- Udaltzaingo Saila.
- Euskara eta Hezkuntza Saila.
- Informatika Zerbitzua.
- Enplegu Saila.
- Kirol Saila.
- Komunikazio Zerbitzua.
- Berdintasun Zerbitzua.

### **3.2. Pertsonal tekniko horri ondoko funtzioak esleitu zaizkio:**

- Proiektuaren garapen-esparruaren barruan zehazten diren berdintasunean hezteko prozesuetan parte hartzea, eta eskuratutako ezagutzak, esperientziak eta tresnak dagokion saileko gainerako pertsonalari helaraztea.
- Berdintasun Sailarekin etengabe solasean eta lankidetzan aritzea, sail bakoitzaren proiektuan zehaztutako ekintzak garatu eta jarraitzeko.
- Berdintasun Sailak eskatutako dokumentazioa ematea (inprimakiak, txostenak, dokumentuak, etab.), dagokion sailean genero-ikuspegia sartzeko beharrezkoak diren zeharkako neurrien abiarazte-maila baloratzeko.
- Udaleko beste sail batzuetako pertsonal teknikoarekin koordinatzea, proiektuaren esparruan baterako ekintzak beharrezkoak balira.
- Bi hilez behingo txostenen bidez, proiektuaren esparruan garatutako ekintzen berri ematea; ondoko alderdi hauek adierazita: gauzatutako ekintzak, erabilitako baliabideak, eta ekintzak garatzean antzemandako aurrerapenak eta oztopoak.
- Dagokion sailari zuzendutako ekintza-planean zehazten diren jardunak proposatu, bultzatu eta helaraztea.
- Dagokion saileko zuzendaritzari, etengabe, bere sailean proiektuaren ezarpenak izandako bilakaeraren berri ematea.